



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/06/20

Batzarretako Presidentziak berretsi egin dau adierazpen askatasunaren eta zentsura bako sorkuntzaren aurreko errespetua

Ana Otadui Biteri Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentek, PP taldeko batzarkide batek, “Sexu aniztasunaren aldeko euskal artea” erakusketako irudiren bat kentzeko egin dauen eskariaren aurrean, berretsi egin dau erakusketa areto horren “adierazpen eta sorkuntza askatasunaren aurreko errespetua, ezelango zentsura barik, lan artistikoa gustau edo ez”.

Ana Otadui erakusketa artistiko horren inaugurazio ekitaldian esan eban berbak gogoratu arazo ditu.

“Batzar Nagusietatik eta bertako erakusketa aretotik –esan eban Ana Otadui– sorkuntzaren eta Artearen aldeko apustua egiten jarraitzen dogu, ezelango zentsura barik, errespetuan eta adierazpen askatasunean oinarrituta, artelanak ez dirala beti danon gustukoak jakinda, izan be, koloreak gustuetarako dagoz eginda. Ikusle moduan, artelanak alkarrekintzan aritzen gara, aztertu, sentidu edo kritikau egiten doguz, artea, erakusketa honek batu gura dauen aniztasun sexuala besteko anitza dalako: transgresorea, ingenuoa, probokatzaila, kolorez betetakoa, salatzailea, grisa, irekia, iradokitzailea, kritikoa...”.

Batzar Nagusietako presidentek ez dau Batzarretako taldeetatik erakusketako irudiak kentzeko ezelango eskari ofizialik jaso. Eskari hori jaso ezker, Foru Batzarretako gobernu organuak aztertuko leuke, Bizkaiko Batzar Nagusietako Mahaiak, hain zuzen be.

PP taldeko Jesús Isasi batzarkideak kendu gura dauen Alberto de Las Herasen margolana “From Rusia with love” (Errusiatik maitasunez) da. Artelan horreek, Gay Harrotasunaren Nazinoarteko Egunaren ospakizunagaz lotutako ekimen errebindikatzaileen testuinguruan dagoz, eta homosexualidadeak Errusian legez jasaten dauen errepresinoa eta jazarpena salatu gura ditue.

Orain aste gitxi dirala, Batzarretako talde guztien aho bateko onespengaz, Bizkaiko Batzarrek adierazpen instituzionala onetsi eben LGTBIfobiaren kontrako Nazinoarteko Eguna zala eta. Batzar Nagusietako presidentek, Foru Batzarrek aho bateko adierazpen instituzional horretan hartu ebezan konpromisoen barruan sartu eban Bilbao Bizkaia Pride 2018ko erakusketa artistikoari emoten jakon laguntzea.

Hurtado Amezaga kalean dagon Batzar Nagusietako erakusketa aretoa Batzarretako Presidentziaren esku dago, eta horren kudeaketea Presidentziaren komunikazio aholkulariaren ardura da. Areto horretan erakusten diran erakusketak ez dira norbanakoenak, eta instituzinoen edo kultura edo gizarte arloetako erakundeen eskariei erantzuten deutse. Batzarretako Presidentziatik ez dira erakusten diran artelanak

aztertzen, hainbat lekutatik aurkezten diran proiektuak jasotea onesten da. Holan, urtero, UPV-EHUko Arte Ederren Fakultateak antolatutako hiru erakusketa, Euskal Herriko Argazkilari Taldeen Alkartek bideratzen dauen erakusketa bat –Argizaiola Sariak– edo irabazi asmo bako “Bilbao formarte” alkartetik (adimen urritasuna daukien artistak) jasoten dan eskari bat egiten dira. Aurkezten diran proiektu orokorrak dira Batzarretako Presidentziaren on ikusia jasoten dabenak, areto horretan erakusteko, bakotxaren gustu pertsonalak albo batera itzita, eta ez dira artelan guztiak eta bakotxa aztertzen.

“Sexu aniztasunaren aldeko euskal artea” erakusketaren proposamena, Bilboko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzagaz Bilbao Bizkaia Pride 2018 antolatzen dauen Bilbao Historikotik heldu da Batzarretako Presidentziara. Erakusketa horrek, euren lanak aurretik Guggenheim Museoan edo Artiumen, erreferentziazko galeriatan eta kultur zentroetan erakutsi dituen eta arte prestakuntzarako eta sorkuntzarako beka publikoak edo pribaduak jaso dituen artisten lanak jasoten ditu. Erakusketak, Elsie Ansareo, Alba Burgos, Miriam Ocariz, Bubi Canal, Eduardo Gaviña, Alberto de las Heras, Cachorro Lozano, Azucena Vietes eta Eduardo Sourrouille artisten argazkien, margolanen edo ehun-lanen aukeraketa dauka erakusgai, eta komisarioa Unai Goikolea artista plastiko eta musikaria da.

NOTA DE PRENSA
21/06/18

Presidencia de Juntas reitera su respeto a la libertad de expresión y creación sin censuras

La Presidenta de Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui Biteri, ante la petición de un juntero del PP para la retirada de imágenes de la exposición “Arte vasco por la diversidad sexual”, ha reiterado la apuesta de esta sala de exposiciones por “el respeto a la libertad de expresión y creación, sin ningún tipo de censura, al margen de que la obra artística te guste o no”.

Ana Otadui ha recordado las palabras que pronunció en la inauguración de esta muestra artística.

“Desde Juntas Generales y su sala de exposiciones –aseguró Ana Otadui– seguimos apostando por la creación y por el Arte, sin censuras, desde el respeto y la libertad de expresión, sabiendo que las obras de arte no siempre son del gusto de todos y todas, pues para gustos están hechos los colores. Como espectadores y espectadoras, interactuamos, analizamos, sentimos o criticamos las expresiones artísticas de un arte tan diverso como la propia diversidad sexual que intenta recoger esta exposición: transgresor, ingenuo, provocador, colorista, denuncia, gris, abierto, evocador, crítico...”

La Presidencia de Juntas Generales no ha recibido oficialmente ninguna petición de retirada de imágenes de la exposición por parte de grupos junteros. En caso de producirse esta petición, sería analizada por el órgano de gobierno del Parlamento foral, la Mesa de Juntas Generales de Bizkaia.

Las pinturas de Alberto de Las Heras que el apoderado del PP Jesús Isasi PP pretende retirar se titulan “From Rusia with love” (Desde Rusia con amor). Estas obras se contextualizan en el marco de iniciativas reivindicativas vinculadas a la celebración del Día Internacional del Orgullo Gay y pretenden denunciar la represión legal a la homosexualidad en Rusia.

Hace apenas unas semanas, por unanimidad de todos los grupos junteros, el Parlamento de Bizkaia aprobó una declaración institucional con motivo del Día Internacional contra la LGTBIfobia. La Presidenta de Juntas enmarcó el apoyo a la muestra artística del Bilbao Bizkaia Pride 2018 en los compromisos adquiridos por la Cámara foral en esta unánime declaración institucional.

La sala de exposiciones de Juntas Generales en Hurtado Amezaga depende de la Presidencia de Juntas y su gestión del asesor de comunicación de Presidencia. Las muestras que se exponen en esta sala no son individuales, responden a peticiones de instituciones o entidades culturales o de carácter social. Desde la Presidencia de Juntas no se visan cada una de las obras expuestas, se aprueba acoger proyectos que se reciben desde distintos ámbitos. Así se realizan anualmente tres exposiciones organizadas por la Facultad de Bellas Artes de la UPV-EHU, una muestra desde la Federación de Asociaciones de Fotografía del País Vasco – Premios Argizaiola o desde la asociación sin ánimo de lucro “Bilbao formarte” (artistas con discapacidad intelectual). Son los

proyectos globales presentados los que reciben el visto bueno de la Presidencia de Juntas para ser expuestos en esta sala, al margen de sus gustos personales, no todas y cada una de las obras expuestas.

La propuesta de la muestra “Arte vasco por la diversidad sexual” ha llegado a la Presidencia de Juntas desde Bilbao Historiko, entidad organizadora del Bilbao Bizkaia Pride 2018 con el apoyo de Ayuntamiento de Bilbao y Diputación de Bizkaia. Esta exposición reúne obras de artistas que con anterioridad han expuesto en Museo Guggenheim o Artium, en galerías y centros culturales de referencia, han recibido becas públicas o privadas para formación y creación artística. La muestra incluye una selección de fotografías, pinturas o textiles de Elssie Ansareo, Alba Burgos, Miriam Ocariz, Bubi Canal, Eduardo Gaviña, Alberto de las Heras, Cachorro Lozano, Azucena Vietes y Eduardo Sourrouille, con el comisariado del también artista plástico y músico Unai Goikolea.